

**Segurako Udaleko eta Mutiloa-Zalduondo-Zerain udal elkarteko Idazkaritza
lanpostuak bitarteko funtzionarioek betetzeko hautaketa prozesua**

(2020/06/24ko GAO, 118. zk.):

Goian aipatu hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileak, 2021eko otsailaren 25eko bileran, erabaki hauek hartu ditu, besteak beste:

1.- Xede horrekin emandako epean lehiaketaldian alegatu eta egiaztatu diren merezimenduen behin-behineko balorazioa onartzea eta argitaratzea oinarrietan ezarritako moduan. Honakoa da:

4. HE egiaztatu duten hautagaiak:

HAUTAGAIA	Lan esperientzia		Prestakuntza		GUZTIRA
	9.1.1.a)	9.1.1.b)	9.1.2.a)	9.1.2.b)	
Lapatza-Gortazar Bengoa, Patxi Jagoba (**8319**)	1,85	0	0	0	1,85

3. HE egiaztatu duten hautagaiak:

HAUTAGAIA	Lan esperientzia		Prestakuntza		GUZTIRA
	9.1.1.a)	9.1.1.b)	9.1.2.a)	9.1.2.b)	
Alonso Sarasola, Lia (**4021**)	0	0	0	0	0
Latasa Sorondo, Aitziber (**5641**)	0	0,84	0	0	0,84
Ugalde Arruti, Eurne (**4619**)	EZ DU MEREZIMENDURIK AURKEZTU				

2.- Deialdia arautzeko bederatzigarren oinarriaren 3. zenbakiari jarraikiz, 3 egun balioduneko epea ematea lortutako puntuazioaren kontrako erreklamazioak aurkezteko: hau da, **2021eko martxoaren 1etik 3ra arte** (biak barne).

3.- Egon daitezkeen erreklamazioak ebaztearen kaltetan gabe, hautaketa prozesua gainditu duten izangaien azken kalifikazioa zehaztu eta argitaratzea oinarrietan ezarritako moduan. Honakoa da:

4. HE egiaztatu duten hautagaiak:

HAUTAGAIA	Oposizioaldia	Lehiaketaldia	GUZTIRA	HURRENKERA
Lapatza-Gortazar Bengoa, Patxi Jagoba (**8319**)	17,91	1,85	19,76	1.a

3. HE egiaztatu duten hautagaiak:

HAUTAGAIA	Oposizioaldia	Lehiaketaldia	GUZTIRA	HURRENKERA
Alonso Sarasola, Lia (***4021**)	20,12	0	20,12	2.a
Latasa Sorondo, Aitziber (***5641**)	18,79	0,84	19,63	3.a
Ugalde Arruti, Edurne (***4619**)	19,13	0	19,13	4.a

4.- Hautaketa prozesuan lehen postuan gelditu den **Patxi Jagoba Lapatza Gortazar-Bengoari** 5 egun naturaleko epea ematea deialdia arautzeko hamaikagarren oinarrian aurreikusi dokumentazioa aurkezteko; hau da: **2021eko martxoaren 1etik 5era arte** (biak barne). Aldi berean aukeratu beharko du bi lanpostuetatik zein beteko duen: Segurako Udaleko Idazkaritza lanpostua ala Mutiloa-Zalduondo-Zerain elkarteko Idazkaritza lanpostua.

Ezinbesteko kasua tartean egon gabe ez baditu aipatu agiriak epe barruan aurkezten, aurkeztutako agirien arabera ez badu betetzen bigarren oinarrian ezarritako baldintzetakoren bat, edo ez badu lanpostuari dagozkion zereginak gauzatzeko behar den gaitasun fisikoa edo psikikoa, ezingo zaio bitarteko funtzionario izendatu; eta baliogabetuta geratuko dira egindako jardunbide guztiak. Hori gertatzen bada edo proposatutakoak izendatua izateari uko egiten badio, azken kalifikazioaren arabera hurrengoa den izangaia izendatzeko proposamena egingo du epaimahaiak.

5.- Hautaketa prozesuan bigarren postuan gelditu den **Lia Alonso Sarasolari** 5 egun naturaleko epea ematea deialdia arautzeko hamaikagarren oinarrian aurreikusi dokumentazioa aurkezteko; hau da: **2021eko martxoaren 1etik 5era arte** (biak barne). Izangai hau lehenengoak aukeratu ez duen lanposturako proposatuko da.

Ezinbesteko kasua tartean egon gabe ez baditu aipatu agiriak epe barruan aurkezten, aurkeztutako agirien arabera ez badu betetzen bigarren oinarrian ezarritako baldintzetakoren bat, edo ez badu lanpostuari dagozkion zereginak gauzatzeko behar den gaitasun fisikoa edo psikikoa, ezingo zaio bitarteko funtzionario izendatu; eta baliogabetuta geratuko dira egindako jardunbide guztiak. Hori gertatzen bada edo proposatutakoak izendatua izateari uko egiten badio, azken kalifikazioaren arabera hurrengoa den izangaia izendatzeko proposamena egingo du epaimahaiak.

Seguran, 2021eko otsailaren 25ean.

Epaimahai kalifikatzaileko idazkaria,

Sin.: Diego Tocino Casales.

